

ZALDI BALTZA ELORRIOKO XAKE TALDEA

Prentsa oharra

Elorrion, 2004.eko apirilak 26an

Eusko Jaurlaritzak XAKEari kirol izaera kendu nahi dio

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak kirol federakuntzei buruzko dekretuaren proiektuak harridura eta ezinegona sortu du xakearen inguruko erakunde eta pertsonengan. Dekretu hori onartzeak Xake Federakuntzen desagertzea eta Xakearen kirol izaera galtzea ekarriko du Euskal Autonomi Erkidegoan.

Hori dela eta honako hau adierazi nahi dugu:

- Xake kirola da, eta gure inguruko herrialde guztietan kirol bezala onartua dago eta Nazioarteko Olinpiar Batzordeak ere kirol gisa du Xakea.
- Euskal Autonomi Erkidegoko Xake Federakuntzei gure elkartasuna adierazten diegu, eta federakuntzekin bat egiten dugu xakearen alde.
- Kirol Federakuntzei buruzko dekretu proiektua ez onartzea eskatzen dugu. Horrelako dekretuaren proiektua prestatzeko, Euskal Kirol Federakuntza guztien beharrak eta iradokizunak kontutan hartu beharko lituzke Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak.
- Edozer gertatuta ere Xakean jokatzeko jarraituko dugu, Euskal Autonomi Erkidegoan xake ligarik antolatzerik ez balego Nafarroara edo Errioxara joango ginateke xakean jokatzera.

Zuzendaritza Batzordea
Zaldi Baltza Elorrioko Xake Taldea

